

udaltop

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK



IZENBURUA:

Aramaio: aurkezpen datu batzuk

EGILEAK:

Rosa Mondragon
Ane Miren Etxeberria

DATA:

2015/04/29



Aurkibidea

1. Araba-Aramaio: erreflexiorako datuak.....	3
2. Oztopoen gainetik bidea egiten goaz!	4
3. Eguneroko jardunak erakutsi digun bidea	5



1. Araba-Aramaio: erreflexiorako datuak

Arabako testuinguruan, Eusko Jaurlaritzak 2014an aurkeztu zuen euskararen V. Mapa Soziolinguistikoaren arabera, 5 urte edo gehiagoko 301.896 arabarretatik 69.196 euskaldunak dira, hau da, % 22,9. Bilakaerari dagokionez, hazkundirik handiena Arabak izan duela dio ikerketa honek. Araban biztanleriaren % 4 zen euskalduna duela 30 urte. Hortaz, ia 19 puntuko hazkundera izan du.

Ezagutzari dagokionez, Araban 5-19 urte bitarteko ume eta gazteen bi heren baino gehiago euskaldunak dira gaur egun. Hortaz, oso gazteak dira arabar euskaldun gehienak. Adinean gora egin ahala, jaitsiz doa euskaldunen ehuneko.

Aramaiok 1.540 biztanle dituena udalerrria da. Euskararen ezagutza eta erabilerari buruzko datuei dagokionez, eta azken datuen arabera (2011) %82an kokatzen da euskararen ezagutza. Ikastetxe bakarra dago herrian, haur hezkuntza eta lehen hezkuntza eskaitzen dituena, D eredu.

Aramaion 2012an egin zen azken kaleko neurketa eta hor jasotzen denari erreparatu, neurtu diren elkarriketa guztien %64 a euskaraz izan da. Hala ere, kontuan hartu behar da neurketa Aramaioko erdigunean egiten dela soilik eta ez beste zortzi auzoetan. Izan ere, Aramaio zortzi auzo eta erdiguneak osatzen dute eta errealitate linguistiko desberdina da kasu bakoitzean. Antzematen da oraindik ere auzoetan euskararen erabilera zertxobait altuagoa dela, baina ez dugu datu zehatzik haur hezkuntzarako, inpresio besterik ez da.

Horrez gain, etxean zein hizkuntzatan hitz egiten den galdetuta, %56a bakarrik komunikatzen da euskaraz; %30a gaztelera; %15a bi hizkuntzak erabiltzen ditu; eta % 1,2k atzerriko beste hizkuntza bat. Azken datu hau gorantz doa, izan ere etorkinen kopuruak gora egin du Aramaion eta nahiz eta eskolan matrikulatu diren haurrak, ez da somatzen integrazio sozialerako aurrerapausurik, modu isolatuan erlazionatzen baitira (pakistanarrak, adibidez).

1.2. UEMAn 1996an sartu zen eta gaur ere Arabako herri bakarra gara UEMAn

Udalerrri Euskaldunen Mugimendua 1988. urte amaieran hasi zen, gune euskaldunetan euskararen erabilera arlo sozial guztietara zabaltzeko asmoz eta udal euskaldun guztiekin euskara nagusi izango den lur-gunea antolatzeko helburuarekin.

Udalerrri euskaldunen eginkizuna garrantzi handikoa da euskararen normalizazio prozesuan. Euskarak, biziko bada, berez nagusi izango den lur-gunea behar du, eta hori zelabait gauzatuko litzateke udalerrri euskaldunak batuko balira. Hau da, Euskal Herrian egoera minorizatuan badago ere, udalerrri euskaldunetan euskara da nagusi eguneroko harreman arruntetan behintzat.

Udalerrri euskaldunetan (euskaldunak %70etik gora) 200.000tik gora euskaldun bizi da eta hizkuntz planifikazio aurrerakoa egin daiteke udal euskaldunetan, normalizazio bidea eraldunetan baino errazagoa delakotz. Izan ere, udal euskaldunetan berezko euskal sareek (familia, lagunartea, eskola, administrazioa, gizarte-zerbitzuak, lan mundua...) erraztu eta ahalbideratu egiten baitute euskararen erabilera.

Aramaio, 1996an sartu zen UEMAn. Ordutik euskararen barne erabilera plana garatuz joan da, euskara administrazio eta gizarte harremanetako hizkuntza bihurtzeko. Hauek dira, besteak beste, Aramaion martxan diren egitasmoak: hizkuntza eskubideen Behatokiaren buzoia, euskalduntze eta alfabetatzerako laguntzak, alfabetatze kanpaina, ludoteka eusakraz, udako udaleku irekiak, establezimendu eta merkatarientzat aholkularitza zerbitzua, euskarazko produktuen katalogoa, kultur programazioa, haur jaio berrientzat kanpaina, ahozko ondarearen bilketa.

UEMAko herri guztiok hartu dugun azken erabakia hauxe izan da, adibidez: euskal kate publikoan euskaraz hitz egiten agertzea, ETB1 eta baita ETB2an ere. Horrez gain, beste inizatiba batzuk ere bultzatu ditugu elkarrekin: errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina, osasungintza euskalduntzeko kanpaina, eta abar.

Gainera, badira UEMAn bitartez Aramaion antolatu ditugun ekintzak, beti ere euskararen normalizazioa bultzatzeko asmoa. Azken harnasguneen tailerra izan zen, non herriko eragile desberdinak batu ziren herriko egoeraz hitz egiteko eta etorkizunera begira ditugun erronkak definitzeko.

Aramaio UEMAn sartzearekin batera konpromiso batzuk bereganatu zituen, euskaraz funtzionatzeko neurriak adostu eta poliki poliki euskararen normalizazioaren bidea jorratzeko. Neurri guztiak Erabilera Planean adostu ditugu ziklo bakoitzean.

ERABILERA PLANA. Plana luzea eta zehatza da eta ez dugu osotasunean azalduko. Dena den Aramaio Udal V. Plangintzaldirako erabilera plana onartu zuen 2014ko urtarrilaren



31ko osoko bilkuran eta hauek dira bertan jasotzen diren akzio batzuk, modu laburrean aipatuta:

- Bai derrigorrezko iragarkiak bai publikitate egitekoak euskaraz bidaltzea hedabideetara eta buletinera.
- Idatzizko barne harremanetako eredueta oinarritutako idatzi oro euskaraz sortzea eta hedatzea eta gaztelania hutsezkorik ez izatea.
- Udalaren eta beste erakunde publikoen arteko harremanak euskara hutsez izan daitezen bermatzea, bai telefonoz bai aurrez aurreko bilera edo aurkezpenetan. Horretarako, alde biko hitzarmenak egitea sustatuko du udalak.
- Hego Euskal Herriko lurralde esparruan kokatuta dauden beste administrazio publiko nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin, behintzat, euskararen erabilerari dagokionez, eredu-garri izatea eta elkarrekiko harremanak euskara hutsez izan daitezen bultzatzea. (Foru Aldundia batik bat)
- Udalak zerbitzu enpresa guztiokin harremana euskaraz izatea, eta enpresek udalarekiko zein herritarrekiko izan ditzaketen ahozko zein idatzizko harremanei begira, ematen duten zerbitzuetan euskara kontuan har dezaten bermatzea.
- Hirigintzako baimenen bat eman behar duenean, udalak bermatzea baimena jasoko duenak euskara erabiliko duela ageriko elementuetan: iragarpen, errotulu, ohar, seinale...
- Merkataritza eta ostalaritza establezimenduen kasuan, udalak errotulazioa euskaraz jar dezala gomendatzea. Diru-laguntzak ere ematen dira errotulazioa euskaraz jartzeagatik.
- Beste baldintzekin batera, baldintza pleguetan hizkuntzarena ere sartu (baita baso-ustiaketan kasuan ere).
- Udaleko langileek eta arduradun politikoek erabiltzen dituzten aplikazio informatiko orokorreari dagokionez, euskarazkoak erabilgarri izatea.
- Neurriak langileekin konpartitu eta memoriak eta txostenak euskaraz egin behar direla gogora ekarri. Prozedimendua zehaztu eta guztiok berdin funtzionatzeko baliabideak jarri.

2. Oztopoen gaintik bidea egiten goaz!

2.1. Bidean zer aurkitu dugu?

2.1.1. Bidean...Udalean bertan oztopoak egunez egun izaten dira, beraz, etxe barrutik hasita badugu non hobetu

1. **Gorabeherak** izan ditugu urte hauetan. Nahiz eta ezarritako arauak langile eta politikoekin konpartitu, ia egunero ikusten ditugu kontraesanak: plegu batzuk gaztelaraz ateratzen direnean adb, presaren aitzakiarekin edo!. Edota zerbitzu kontratoetan ez direnean kontuan hartzen hizkuntza irizpideak. Azken finean, asmo onak igarri arren, eta irizpide berdina langile guztiokin konpartitu arren, praktikan ez dira beti betetzen. Langileen artean ohiturak aldatzea kostatzen zaigu, bakoitzaren esku dauden hainbat aspektu daude: telefonoa euskaraz erantzun, programa informatikoa euskaraz erabili, herritarra beti euskaraz hartu ... hauek adibideak besterik ez dira. Horrelako detaileak egunero ematen dira. Esan bezala, badugu non hobetu!
2. **Udal txiki:** baliabide urriak. Aitzakia bada ere kasu askotan, errealitatea ere bada. Aramaioko Udalak 5 langile ditu jardun osoz, hiru jardun erdiz eta beste lau Arabako beste udal batzuekin konpartituta, hau da, astean behin edo birritan etortzen direnak.
3. **Herri euskalduna** da Aramaio? Guztiok barneratuta dugun mitoa da: Aramaio herri euskalduna da. Sarritan aitzaki horrekin gaztelaraz mintzatzen gara! Hau ere gure sentsazioa da. Noski, udalean poliki poliki bada ere aurrera goazela uste dugu baina herrian, kalean gaztelara entzuten da. Orain dela urte batzuk pentsaezina zen 10 urteko neska-mutikoak gaztelaraz hitz egiten entzutea; gaur egunero ematen den fenomeno da gure herrian.

2.1.2. Bidean... Egiten goazen bidean zer aurkitu dugu?

Etiket kanpo ere oztopoak askotarikoak dira:



- **Araba gara:** Gorbeialdea, Foru Aldundia, ... Aramaio Araban dago eta nahiz eta Debagoienarekin harreman estua duen, administratiboki Gorbealdean gaude eta bertako parte bat gara. Gainera Arabako Foru Aldundiarekin eguneroko erlazioa dugu. Eta zentzu honetan ere bada non hobetu. Hainbat sailetan gaztele-raz funtzionatzen da eta horrek eraginda noizbehinka gaztele-raz bakarrik datozen notifikazioak jasotzen ditugu: ogasuna, ingurugiroa, eta beste arlo batzutatik. Ahozko harremana ere gaztele-raz da sail hauetako pertsona batzuekin.
Arabako udal guztiok konpartitzen ditugun programa informatikoak gaztele-raz sortzen dira. Adibidez 2014an estreinatu da errolda, likidazioak, zergak kudeatzen duen programa informatikoa. Gaztele-raz jarri da martxan eta ondoren euskaratu da. Horregatik, momentuko egoera nahiko larria da. Zergatik? Ez dugu euskaraz bakarrik sortzen den dokumenturik, ezer ez. Eta elebitan sortzen direnak nahiko euskara traketsa dute.
Guzti honetaz kexatuko gara Diputazioan behin baino behiagotan eta ahalegindu gara bertako euskara zerbitzuaren bitartez gaia bideratzen. Momentu honetan ez dugu aurrerapausu nabarmenik igarri, nahiz eta jarraitzen dugun normalizazioa eskatzen.
- **Urkijoren salaketa.** Gobernu ordezkariordetzatik aktak elebitan bidaltzeko errekerimendua jaso genuen 2014ko hasieran. Behin baino gehiagotan jaso dugu errekerimendu bera eta azkeneko aldiz erreklamatu ziren akten laburpena bidali genuen elebitan. Gaur egun 2014an jaso genuen lehendabiziko errekerimenduaren espediente artxibatuta geratu da. Baina dagoeneko jaso dugu 2015eko lehen errekerimendua, izan ere aurtengoak ere euskara hutsez bidali ditugu.
Kasu honetan ere badakigu beste udalerririk batzuetan errekerimendu bera jaso dutela eta UEMAk orain baino lehen eskatu zion Jaurilaritzari udalak babestu eta udalek dituzten auzietan pertsonatzeko. Izan ere, asko dira euskara sustatzeagatik Espainiako Gobernu Ordezkararen errekerimendu eta helegiteak jaso dituzten udalak.

3. Eguneroko jardunak erakutsi digun bidea

3.1. Datuek egiaztatzen dute eboluzioa

3.1.1. Zailtasunen ginetik bidea egiten goaz

Oztopoak oztopo bidean aurrera goazela uste dugu. Aramaio Udalean eguneroko jarduna euskaraz da %80tik gora. Etxe barruan langileen artean egin dugun diagnostikoak horixe adierazten du behintzat. Herritarren aldetik ere gehiago eta gehiago dira euskaraz idaztera animatzen direnak, eskaerak euskaraz aurkezten dituztenak. Honek ere zuzenean eragiten du barruko funtzionamenduan. Gaur egun, ez da gaztele-raz hutsezko agiririk ateratzen udaletik. Horixe da finkatu dugun irizpidea.

3.1.2. Atzera begiratzuz

Atzera begiratzuz: errealitatea aldatu da udalean. Aramaio Udala orain dela 19 urte sartu zen UEMAn. Eta Euskara Saila orain dela hamabost urte inguru sortu zen Aramaio Udalean. Atzera begiratzuz gero, orduetik aldaketa nabarmena izan dela baieztatu daiteke.

3.1.3. Datuak egiaztatzen dute eboluzioa

Esanguratsuak diren datu batzuk emango ditugu, ikusteko aurrera goazela:

- Txosten teknikoak euskaraz. Orain dela hamabost urte arkitektoak zein aparejadoreak egiten zituzten txostenak gaztele-raz ziren. Gaur egun euskaraz ere egiten dira.
- Zerbitzu guztietan atenditzen da euskaraz. Orain dela hamabost urte arkitektoak, gizarte laguntzaileak ... gaztele-raz hartzen zituzten herritarrak. Gaur langile guztiek dute gaitasuna herritarrak euskaraz atenditzeko.



- Udalaren bulegoetan ematen da bake epaitegiko zerbitzua. Orain dela hamabost urte gazteleraz ematen zen (ahozkoa zein idatzizkoa). Gaur egun euskaraz ere ematen da.
- Hizkuntza paisaia euskarazkoa da udaletxean. Arlo honetan ere igartzen da eboluzioa. Egungo espediente guztiak dute euskarazko katalogazioa.
- Euskara hutsezko hainbat agiri. Lehen ematen ez zen fenomeno da hau ere. Gaur egun, euskara hutsez hainbat dokumentu kaleratzen dira: batzordetako obra guztiak, dekretuak, obra baimen batzuk, notifikazio batzuk.

Adi, erne! Eskarmentuak erakutsi digu ezin garela erlaxatu! Esperientziak erakutsi digu alerta egoten. Aurretik aipatu bezala, adostu diren irizpideak konpartitzen ditugun arren, egunero dugu zer hobetu.

udaltop

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK

